

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

11. aholkua. Ba al duzu WhatsApp talderik?

1. WhatsApp ahalmen handiko komunikazio-tresna da. Harreman sozial asko ahalbidetzen ditu. Baina ez da sare soziala, mezu-plataforma baino.
2. Talde asko izatea nekagarria izan daiteke guretzat, batez ere taldeak oso aktiboak badira. Jakin behar dugu aukera dugula taldeak aldi baterako isilarazteko (8 orduz, aste batez edo urte batez) edo mezuen jakinarazpena konfiguratzeko, bibrazioak edo soinuak egin ez dezaten.
3. Taldean norbait sartu baino lehen, onena izango litzateke baimena eskatzea. Ez genuke ahaztu behar parte hartzeko erabakia norberarena dela, eta ez proposamena egiten duenarena.
4. Garrantzitsua da modalak zaintzea eta taldea osatzen duten beste pertsonak errespetatzea. Gainera, noizbait taldea uztea erabakitzen baduzu, zintzoena da taldetik atera baino lehen, abisatzea.
5. WhatsApp pertzepzioen agertokia da. Askotan, hitz bakar bat modu askotan interpreta daiteke hartzaillearen eta igorlearen artean. Zaila da komunikazioa tresna horren bidez bakarrik egitea; izan ere, horrela alde batera uzten dugu elkarrizketa orotan berezkoa eta ezinbestekoa den zatia: hitzik gabeko komunikazioa. Beraz, gaizki-ulertuak egon daitezke. WhatsApp ez da eztabaidetan parte hartzeko espazio egokia, baldin eta datu edo esteka soil batekin konpon badaiteke.
6. WhatsApp ez litzateke erabili beharko nolabaiteko sentsibilitatea duen informazio edo mezuetarako. Egoera horietarako, ezin du inola ere ordeztu aurrez aurreko elkarrizketa. Seguruena, hartzailleak eskertuko dizu. Gizakien arteko harremanak harreman fisikoaren arabera definitzen dira.
7. Kontuz mezuak bidaltzeko erabiltzen ditugun WI-FI sareekin. Sare publikoak badira, gaizkileek erraz harrapa ditzakete gure mezuak. Hori dela eta, ez genuke pasahitzik, kreditu-txarteletan zenbakirik edota banku-konturik edo material konprometiturik (adibidez, sexuarekin loturiko irudiak) igorri behar.
8. Elkarrizketen historia telefono mugikorrean geratzen da, eta espazio handia hartzen dute. Gomendatzen dugu pixkanaka mezuak ezabatzea. Gainera, horrekin ziurtatu egingo dugu inork ez izatea mezuetarako sarbiderik.
9. Ez gaitezen obsesionatu check-arekin, check bikoitzarekin, check bikoitz urdinarekin... Meza jasotzen duen pertsonak erabakiko du noiz den erantzuteko une egokia. WhatsApp bizi errazteko tresna da; beraz, ez dezagun guk geuk zailagoa egin.
10. Errespetatu WhatsApp ez duten pertsonak. Mugikorreko mezu-sortan parte hartzen ez badute ere, eman erraztasunak gizarte-taldeetan sartzeko. Eremu horiek aberastea eta gozatzea garrantzitsua da pertsona guztientzat.